Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2722

EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 3koa, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariarena, Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren osaera aldatzeko dena.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariaren 2006ko azaroaren 23ko Ebazpenaren bidez, akreditazioa berritu zitzaion Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari (urtarrilaren 15eko EHAA, 10. zenbakia).

Ospitaleak eskaera egin du Batzordeko kideak aldatzeko. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Komite Etikoen akreditazioari buruz Osasuneko sailburuak 1994ko irailaren 28an emandako Aginduaren 3. eta 7. artikuluetan (urriaren 24ko EHHA, 202. zenbakia) eta Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuan agintzen denarekin bat etorriz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Jesús Morán Barrios jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua, Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Etika Batzordeko kide modura izan duen postutik kentzea.

Bigarrena.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina. Ebazpena, bestalde, Osasun eta Kontsumo Ministerioari jakinaraziko zaio.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administraziobidea amaitzen. Beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordeari edota Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 3a.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendaria,
JOSÉ ASUA BATARRITA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

2722

RESOLUCIÓN de 3 de mayo de 2010, del Director de Gestión del Conocimiento y Evaluación, por la que se modifica la composición nominal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Cruces.

Mediante Resolución de 23 de noviembre de 2006, de la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria (BOPV n.º 10, de 15 de enero), se concedió la renovación de la acreditación al Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Cruces.

Habiéndose recibido del Hospital solicitud para modificar la composición del Comité, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 3 y 7 de la Orden de 28 de septiembre de 1994, del Consejero de Sanidad (BOPV n.º 202, de 24 de octubre), de acreditación de los Comités Éticos de Investigación Clínica en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y al Decreto 579/2009 de 3 de noviembre por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y Consumo.

RESUELVO:

Primero.– Cesar como miembro vocal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Cruces a D. Jesús Manuel Morán Barrios, Licenciado en Medicina y Cirugía General.

Segundo.– La presente Resolución surtirá efecto a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Así mismo, será comunicada al Ministerio de Sanidad y Consumo.

Tercero.– Contra la misma, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados formular recurso de alzada ante la Viceconsejería de Calidad, Investigación e Innovación Sanitaria o la Dirección de Gestión del Conocimiento y Evaluación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a aquel en que tiene lugar su publicación oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de mayo de 2010.

El Director de Gestión del Conocimiento y Evaluación,
JOSÉ ASUA BATARRITA.